Badatoz inauteriak eta egunkarian berri hau aurkitu dugu, Tolosako inauteriari buruzkoa.

INAUTERIAK

ONDO PASATZEKO GARAI HOBERENA



Inauteriak hemen dira! Mozorroak jantzi eta jai giroa bizitzeko egunak. Umorea izango da nagusi Tolosako txoko guztietan.

Bada ohitura zahar bat: oihalak balkoietan. Tolosako balkoietan oihalak jartzen dira eta balkoiak apainduak egongo dira ostegunetik aurrera.

"Garikano" zapata-dendako Joxe Ramon eta Kontxi, "Aitor" ileapaindegikoa, sobrekamak balkoietan jartzen hasi ziren, aitzinean egiten zen bezala.

1. Nongo inauteriak aipatzen dira testuan?

2. Zer jartzen dute balkoietan?

3. Noiz hasten dira Tolosako inauteriak, asteko zer egunetan?

4. Zer saltzen zituen Joxe Ramonek "Garikano" dendan?